SEASKAren 2022/23 AURREKONTUAREN ZEHAZTAPEN NOTA

2022/23 aurrekontua, 2 457 773 €ko aurrekontua da eta orekatua aurkezten da. Iaztik elkarteen kondu plangintzaren arauak aldatu dira, beraz aurkezpena ezberdina bada ere, funtsean ez da aldaketa handirik.

I) USTIAPEN EMAITZAK

A) IKASTOLEN PARTE HARTZEAK: 1 135 750 € (+ 8 250 €)

Ikastolek Seaskako aurrekontuaren finantzamenduan parte hartzen dute haur kopuruaren arabera. Iraileko sartze egunari buruz ikastoletan egin diren haur kopuruaren aurreikuspenen araberako ordainketa galdeginen da. Aurrekondua 4 130 ikasleren aurreikuspenarekin egin da.

Parte hartze hori (275 € haur bakoitz) ber heinean da 1999 urtetik. Ikasturte huntan gogoeta bat abiatu dugu ikasturte berrian Lehendakari Batzordearekin partekatuko duguna.

B) LAGUNTZA PUBLIKOAK ETA FUNTZIONAMENDURAKO LAGUNTZAK: 541 486 € (+ 9 486 €)

Lerro horietan aurkitzen ditugu :

- Euskararen Erakunde Publikoak eman dirulaguntza.
- Herriko Etxeek eta herri elkargoek Seaskari emaiten dituzten diru laguntzen aurreikuspena.

C) DOHAINTZA : 25 000 € (=)

- Seaskak eskuratzen dituen emaitzak.

D) EKARPEN EKONOMIKOAK : 396 291 € (- 48 000 €)

- Herri Urratsek emaiten duen laguntza Seaskaren ibilmolderako eta eraikuntzetarako. 2023an eginen den Herri Urratserako aurreikuspena da
- Euskal Herri osoko ikastolen Elkartasun Kutxaren (EKE-EI) laguntza Seaskako egoitzaren mailegua ordaintzeko. Maileguaren erdia bere gain hartzen du.
- CFP, Seaskako erakasleen formakuntza egitura da ISLRF sarearen baitan (Bretoin, Okzitano, Alsaziar, Katalan eta Kortsikarrekin).
- -Seaskako langileak Xalbadorreko belarra mozten du eta Xalbadorrek sos bat emaiten.

E) BESTE EGITUREN EKARPENEN BALIATZEA : 219 696 € (+ 69 946 €)

Aitzineko urteetan Herri Urratsek eraikuntzetarako eman sosa baztertu ondoan, funts horien baliatzea.

F) KARGU TRANSFERENTZIAK : 2 000€ (=)

Eguneroko ibilmoldean egiten diren gastu aitzinatzeen berreskuratzea.

G) BESTE SARTZEAK : 66 000€ (=)

- Seaskak egutegi, aldizkari eta Xiba eta Euskaraz Biziko gastuen ordainketa aitzinatzen du, eta ondotik ikastolek itzultzen dituzte.
- Seaskak Hego Euskal Herrian ikastolen bidez saltzen diren egutegien dirua eskuratzen du.
- Garapeneko proiektuen diru sartzeak.

I) USTIAPEN KARGUAK

A) BESTE EROSKETA ETA KANPOKO KARGUAK : 278 026 € (+ 6426 €)

- Arlo honetan Seaskari lotuak diren ibilmolderako gastuak aurreikusten dira, argindar, bulegoko materiala, konponketa, asurantza, posta, banku zerbitzu eta beste.
- Alokairuak : Seaskak Uztaritze, Senpere eta Bokaleko alokairuak ordaintzen ditu, herriko etxeek Seaskarekin egin baitzuten hitzarmena. Alokairu mobiliarioetan inprimagailu gastuak ageri dira. Alokairu karguetan ere 3 000 € agertzen dira Lur Zerga ordaintzeko.
- Ordainsariak : kondu azterlaria + irakasle ordezkoen dokumentu ofizialen itzulpenak, kontseilu juridikoak.
- Komunikazioa (ate irekiak, Olentzero Park, Mus, Robotika...). Informazio, argitaratze ... : Ikastola aldizkaria eta beste publikazioak, Seaskak ordaintzen ditu eta ondotik ikastolek itzultzen (ikus sartzeak).
- Seaskak ordaintzen ditu XEB (Xiba, Euskaraz Bizi, Bertsolaritza) topaketetako autobus fakturak eta ondotik ikastolek itzultzen dituzte. (*ikus sartzeetan*).
- Bide gastuak : Seaskako langileen eta irakasleen bide gastuak ageri dira hemen. Orain arte Lehen Mailako irakasle ordezkoei bide gastuak ordaintzen zitzaizkien etxetik ikastolara 30 km baino gehiago egiten bazituzten eta Maitre Auxiliaire 2 (MA2) soldata taularen lehen heinean baldin baziren. Gisa berean Lehen Mailako eta Bigarren Mailako ordezkoen arteko tartea bazen. 2021-2022 urtean Lehen Mailako ordezko guziak MA1n sailkatzea lortu da, beraz Lehen eta Bigarren Mailako ordezkoak hein berean dira orain. 2022-2023 urtean bide gastuak, urtean zehar sartuko diren ordezkoendako izanen dira, etxetik ikastolara 30 km baino gehiago egiten dutelarik, Lehen eta Bigarren Mailako irakasleentzat.
- Harrera eta bidai gastuak. Parisen edo Estatu mailan egiten diren bilkurendako (ministeritza, ISLRF, Eskolim), eta harrera gastuetarako.
- Kotizazioak: Euskal Herriko Ikastolen Kooperatiba ikasle kopuruaren arabera emendatzen dena, Euskal konfederazioa eta Garapen Kontseiluko kotizazioak dira batik bat.

B) FINANTZA LAGUNTZAK : 642 000 € (=)

(1) **Ikastolei dotazioak : 137 000 €** :

a. Ikastolen komunikazio proeiktuentzat ematen den dotazioa..

b. Ikastolen arteko elkartasunaren ildotik ikastolek guttienez haurnaka 400 €ko laguntza ukan dezaten segurtatzen zen orain arte (herriko forfaitaren batazbestekoa). Aurrekondu honetan, laguntza hori 450 €tara pasatzea proposatzen da. Bestalde, ikastola tipienak laguntzeko 50 ikasle baino gutiago dituzten ikastolendako 500 € ko heina segurtatzen zen, eta ikasturte berrian 550€ko heina segurtatuko da. Seaskak, Herriko Etxeetatik gutiengo horiek lortzen ez duten ikastolei laguntza emanen die.

c. Lizeoko barnategirako dotazio bat ematen da, barnategiko kostua arintzeko. Lizeoak eta Seaskako bulegoaren adostasunez.

d. Hazkunde dotazioak. Idekitzen den maila bakoitz 1 500 € emaiten da garatzen ari diren ikastolei.

(2) **Egoitzari dotazioa : 500 000 € :** Ikatolen alokairuak, maileguak eta obra handiak eta eraikuntzak ordaintzeko Ikastolen Egoitzari eman dotazioa..

(3) **Beka 5 000 € :** Aekn euskara ikasten duten burasoendako dirulaguntza.

C) LANGILEGO KARGUAK : 1 085 924 € (+ 81 538 €)

Lerro honetan, Seaskaren langilegoari loturiko gastu guziak aurkitzen dira, hala nola :

– Mugagabeko postuak (CDI) : 906 147 € (+ 41 147 €)



1.1 2 zuzendari, orokorra eta hezkuntzakoa eta zuzendari orde bat. Jean Mixel Etxegaray erretretara joan da eta Egoitz Urrutikoetxea izanen da Hezkuntza zuzendaria, Idoia Rodriguez Hezkuntza zuzendariordea.

1.2 2 idazkari

1.3 Kondularitzan aldaketak badira. Maialen Goytyk aitzin erretreta hartu du denbora erdira pasatuz 2022ko urtarriletik. Mado Cachau-k aitzin erretreta hartuko du 2022ko irailetik goiti, denbora erdira pasatuz. Valérie Inda denbora osoz hasi da eta Oihana Ariszaga denbora erdiz hasiko da, jadanik ordezkapen batzuk egin ondoren. Sophie Barneixek 3/4an segituko du. Gisa horretan kondularitzan beharrak goiti joanez, 0.5 postu sortuko da.

1.4 Garapen arduraduna eta Herri Urratseko animatzailea.

1.5 Aholkulariak : 4 psikologo (2,5 denboran ari direnak)

1.6 Inklusiorako 3 aholkulari 2.75 denboraz ari dira. Nahiara Saralegi irakaskuntzara joanen da eta bere ordez Joana Goyheneche hasi da.

1.7 Aldaketak izanen dira formakuntzan Hélène Charritton joaten baita. Bestalde Régine Elosegik denbora parte bat Ikas zentro pedagogikoari zuzendurik luke.

1.8 Denbora erdiz ari den psikomotrizilaria.

1.9 1.5 postu Euskaraz Bizin.

1.10 Garbiketa, barne eta kanpoko artatze lanetan ari den langilea 16 orenez astean. Kepa Garcesek laster erretreta hartuko du ere beraz ordezkatu beharko da.

1.11 EHIko langileak – Bizi jolas (Xiba), Bertsolaritza, Euskaraz Bizi 0.75: Euskal Herriko Ikastolen Kooperatibarekin dute kontratua (ez dira gure aurrekonduan agertzen).

1.12 Integrazio Batzordeko langileak.

2 – Irakasle lanpostuak (CDD) : 126 880 € (+ 5 880 €)

Aurten ez dakigu oraino zonbat postu ukanen dugun. Lau postu guregain aurreikusi ditugu, besteak beste 2 urteko haurrei harrera egiteko. Lehen mailako ikastola tipien zuzendari deskargak gehigarriak gure gain ditugu. Gisa berean, irakasle berri anitz baitugu, heien segimendua segurtatzeko formakuntza bi irakasle titular astean behin libratzeko gisan, bi postu laurden gehituko ditugu iaz bezala.

3 – Lehendakariaren indemnizatzea : 13 500 € (= €)

Seaskako lehendakaritzari indemnitateak, gehienik SMICaren hiru laurdeneko mugan 13 500 €. (*Ikus bozka)*

4 – Langileen Formakuntza : 4 886 €

Seaskako langileen formakuntza jarraikiaren beharrendako.

D) DOTAZIOA AMORTIZAMENDU ETA IMOBILIZAZIOENDAKO: 148 000 € (+3 000€)
E) PROBISIO DOTAZIOA 1000 € (=)
F) BAZTERTU BALIABIDEAK/USTIAPEN DIRULAGUNTZAK 250 000€ (-50 000€)

2023an eginen den Herri Urratsen emaitzen aurreikuspen bat, eraikuntzetarako.

G) BESTE GASTUAK: 25 000 € (+ 500 €)

- Egutegien ekoizpen kostua.
- Tanta 1 500 € : Ikastoletan salduko den Tanta zozketaren etekinak Integrazio Batzordeari bideratuko dizkiote zuzenean ikastolek, Seaskatik pasa gabe. Aldiz Seaskak bere gain hartzen ditu 60 000 € sariaren, notaritza gastuen eta inprimaketa gastuen partea.

H) FINANTZA KARGUAK : 26 823 € (-1 782 €)

Seaskak Kanbon duen egoitza berritzeko (2013) 1 500 000 € ko mailegu bat hartu zen. Seaskaren aurrekonduan, maileguaren interesen itzultzea agertzen da, urtez urte tipitzen ari dena.

Ustiapen emaitza : Ustiapen sartzeak – Ustiapen karguak = - 43 727€
Finantza emaitza : Finantza sartzeak (bankuko interesak) – mailegu interesen karguak = - 24 823€

Ezohiko emaitza : 69 550 € (aitzin zehaztu bezala, irabazi-asmorik gabeko elkarteen kontu planaren aldaketaren ondorioz, eskuratutako ekarpenen zati bat (beste erakundeen finantza-ekarpenerako dedikatutako funtsen erabilera » lerroan agertzen da, eta 2013an Seaskaren egoitza arraberritzeko departamenduko diru laguntzaren zatia hemen agertzen da. 2013ko dirulaguntza izanik ere, obren amortizazioarekin batera agertzen da urtero zati bat.